

## **Gabonetan oparitzeko ipuinen gida kaleratu du Andoaingo liburutegiak**

**Zero eta hamabi urte arteko haurrentzako argitalpenen gomendioak biltzen ditu katalogoak**

Andoain. Urteko edozein egun da aproposa liburuak oparitzeko, baina Gabonetan, Olentzero dela edo Erregeak direla, haurrek opari asko jasotzen dituzte. Andoaingo liburutegiko arduradunek oso mesedegarria ikusten dute opari horien artean ipuinak egotea. Hori bultzatzeko eta gurasoei laguntzeko, oparitzeko aproposak diren liburuen gida bat argitaratu eta banatuko dute datozen egunetan.

Katalogoak adinaren arabera eginiko sailkapena du eta agertzen diren ipuin guztiak liburutegian eskura daude aukeraketa egin aurretik kontsultatu ahal izateko.

Zero urtetik aurrera gomendatzen dituzten argitalpenen artean daude Motx eta Potx zuloa eta muinoa, Egizu lo, Otsoa dator! edo Cocorico. Urdaburutarrak, Nora joan da argia? , ¡No abras este libro! edo Nire jaioterriko jendea dira, besteak beste, sei urtetik aurrera oparitu daitezkeenak.

Irakurketan pixka bat aurreratuago daudenentzat, bederatzi urtetik gorako gaztetxoentzat, hauek dira liburutegiko arduradunek egin dituzten gomendioak: Urrezko giltza , Peter Pan , Kea airean bezala edo Cuando Papá Noel cayó del cielo . Azken sailkapena hamabi urtetik aurrerakoa da eta hor biltzen dira Imagina,Ibrahim jauna eta Koranaren loreak edo Gogoa lege . >a.h.